

OLERTI

ODEIA

(B. Vadier'ena)

—Nora zoaz, odei?
—Ez dakit mutil;
aizearen naiak
beti narabil.
Daramadan urak
egingo du on.
Besterik ez dugu
bear ludion.

DIRAUKET

ITXASOAN

(Trueba'rena)

Oiñ uts, eta bizkar gaiñean
ontzi ondatu zatia,
Begoña'ra doaz igonik
ama ta mutil gastia.
Eleiz-kanpaiak dagoz oska,
aidean dei gozo baten;
eta, Ama-surrean belainiko
ama ta semea jausten.
Otoitz eta negar dagie;
ur ostera, maillukitzan,
neskatilla dago kantari
ibar onetako izkuntzan.
"Erresetan ez dakiana
bebil bein itxas-gaiñeko;
iñok erakutsi esta be,
laster dau an ikasiko."

ZERTAN?

Elai bat, eguzki-dirdir,
Kristo'ren Gurutz-inguru
dabil egulari.
—Zertan ari aiz, elaitxo,
Gurutzeari biraka
ainbestean zoli?
—Jainko-burutik arantsak
atera nairik diardut,
ik sartuak bertan.
—Oi elai, eskerrik asko!
Bizia dutan artean,
lagun akit ortan.

Icotz

POZAREN POZEZ

Poz-pozik nago:
Jainko-grazia
orduoro dago nigan.
Nere zeruan
beti argia
nais eguna, nais gaba izan.
Nere menditan
lore bigunak,
ekatzak gogor jo arren.
Nere ibarretan
ba-dago ura,
beti kantari ta garden.
Munduko bide
guztiak nire
ditut. Zoraturik nago
pozaren pozez,
Jainko-grazia
beti niregan baidago.

DIRAUKET